



2027ko ORRI EUKARISTIKOA

Elkarrekin **GOSEA DESAGERRARAZIKO DUGU**

Manos Unidas
CAMPAÑA CONTRA EL HAMBRE

Otsailaren 14an, igandea, Manos Unidasen Jardunaldi Nazionala ospatuko dugu. Egun honetako liturgiarako, "Gosea dutenen alde" Eukaristia ospatzea proposatzen dugu. (Meza-liburu erromatarra, hainbat beharretarako mezak, 33. zk., 1047. eta 1048. or.). Urtean zeharreko V. igandeko irakurgaiak aldarrikatuko ditugu (B zikloa) (Jb 7, 1-4, 6-7; Sal 146, 1-6; 1 Ko 9, 16-19, 22-23; Mc 1, 29-30).

PIXABAY

SARRERAKO MONIZIOA

Gaur, munduko gosetearekin amaitzeko deia egiten zaigu, Karitatearen dohaina hartuz, gure senideei janaria falta ez dakien eta Jainkoa bihotz aske eta fidakor batez zerbitzatu ahal izan dezaten.

Baina, Karitateaz hitz egiteak elkarrekin lan egitea esan nahi du, Aliantza bat egitea, gure esku aliatuekin gosea, pobrezia eta desberdinkeria desagerraraz ditzagun, guztion ongia eraikiz, garapen justu, inklusibo eta jasangarri baten bidez.

Behartsuen oihua ez ahazteko, gure eskuak beste batzuekin lotuta edukitzera deituak gaude, Jaunak bere Aliantzaz ahaztu ez zituen bezala.

DIRU-BILKETAKO OTOITZA

(Meza-liburu erromatarra, 1047. or.)



IRAKURGAIETARAKO MONIZIOA

Lehenengo irakurraldian, Jobek Jainkoari eskatzen dio bere sufrimendua ez ahazteko eta bere egunen amaieran oroitzeko.

Bigarren irakurraldian, San Paulok Ebanjelioa apaltasunez eta maitasunez iragartzearen garrantziaz hitz egiten du, trukean ezer espero gabe.

Ebanjelioan, Jesusen behartsuekin solidarioak izatera eta haien askatzaile bihurtzera deitzen gaitu, bazterketa-egoeran baitaude; horrela, Jainkoaren erreinuaren zerbitzura jarriko gara.



HERRI-OTOITZA: Jauna, emaguzu zure maitasuna

Apaiak: Egin diezazkiogun gure erreguak Jainkoari, berak maite izan gintuen bezala elkar maita dezagula eskatuz.

● **Elizaren alde:** Jaunak batasunaren eta guztion ongiaren ikur izateko grazia eman diezaion. **Egin dezagun otoitz.**

● **Agintarien alde:** Jaunak argitu ditzan, justiziaren, berdintasunaren eta guztion ongiaren alde lan egiteko. **Egin dezagun otoitz.**

● **Gizartetik kanpo utzitakoen alde:** Jaunak arin diezaion bihotza goseak, pobrezia edo desberdinkeria eragindako utzikeria edo marjinazioa pairatzen dutenei, eta beren bazterketa-egoera gainditzeko eta etorkizun hobe baten esperantza eman diezaion. **Egin dezagun otoitz.**

● **Beren eskuak beste batzuekin aliatuta lan egiten dutenen alde,** zeregin horretan jarrai dezaten. **Egin dezagun otoitz.**

● Bake eta garapenerako aliantzak osatzen dituzten **erakunde eta pertsona guztien alde** batez ere Manos Unidasen alde, Espiritu Santuak bere justizia-fruituak ugaltzeko. **Egin dezagun otoitz.**

Apaiak: O Jainkoa, Aita errukiorra, entzun gure otoitzei eta eman maitasuna zure herriari. **Jesukristo gure Jaunaren izenean. Amen.**



PIXABAY

DIRU-BILKETARAKO MONIZIOA

Diru-bilketa osoa Manos Unidasen lanari laguntzeko erabiliko da. Eskerrik asko zuen eskuzabaltasunagatik.

ESKAINTZAK

(Meza-liburu erromatarra, 1047. or.)



JAUNARTZE ONDORENGO OTOITZA

(Meza-liburu erromatarra, 1047. or.)



HOMILIARAKO IRADOKIZUNAK

- ▲ Gure begirada munduko goseari zuzentzen zaio. Pertsonak, bizitzeko oinarritzko elikagaia ez ezik, beren eskubide guztiak ere behar dituzte.
- ▲ Munduan 1.100 milioi pertsonak pairatzen dute gosea, pobrezia eta desberdinkeria. Ondorioz, egoera horretan dauden pertsonekin karitate-, justizia- eta lankidetzakonpromisoa izatera behartzen gaitu.
- ▲ Gure gizartean gosea, pobrezia eta desberdinkeria desagerraraztera eta mundu bidezkoago eta gizatiarrago bat eraikitza deituta gaude.
- ▲ Aldareak, mahai unibertsal gisa, gogorarazten digu Eukaristia Jainkoaren erreinuko oturuntza dela eta inork ezin duela kanpoan geratu. Halaber, bizitzako ogia partekatzeko batzen gara. Manos Unidasek aukera ematen digu ogi materiala gosearen "etengabeko baraua" jasaten dutenengana iristeko.

▲ "Gure aliantza" "Senideen Aliantza" da. Esku bakarrarekin ezin da txalotu, edo pisu handi bat hartu; gutxienez bi edo gehiago behar dira. Hortik dator Manos Unidasen logotipoa: esku batzuk beste batzuekin aliatuta, gosearen, pobrezia eta desberdinkeria aurka borrokatzeko.

▲ Eukaristiak txikienei eta baztertuenei erabat lotzeko konpromisoa hartzea garrantzitsua.

▲ Gure misioa eraldaketaren katalizatzaile izateko ekintza kolektibotik sortu zen.

▲ Lankidetzak ez da aukerakoa; guztion ondasun unibertsala lortzeko betebeharra da, eta, horregatik, "Ni"-tik "Gu" solidarioetara igarotzen gara.

▲ Gaurko diru-bilketa aldarearen gainean jarriko dugu, beste batzuentzat bizitza bihur dadin.

▲ "Beste esku batzuekin aliatutako gure eskuak" izan daitezela gehien sufritzen duten seme-alaben alde lan egiten duten Jainkoaren Eskuak.



PIXABAY

Borondatezko Barauaren Eguna

2027ko otsailaren 12a, ostirala

Manos Unidasen Jardunaldi Nazionala

2027ko otsailaren 14a, igandea



Kristau-prestakuntzarako material gehiago, hemen: manosunidas.org/sensibilización-parroquias